

Kontziliazio erantzunkidearekiko

JARRERA POLITIKO-IDEOLOGIKOA

Zabalduz 2014an jaiotako kooperatiba bat da, Bogan taldekoa, garapen komunitarioaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren balioak partekatzen dituena. Etengabe hazten ari da, eta gaur egun 300 bazkide eta langile inguru ditu.

Kontziliazio erantzunkidea kooperatibaren balioetan kokatzen da (kontzientzia eta justizia soziala, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna...), eta hori uste sendo batean sustraitzen da, hain zuzen, **bizitzaren eta lan produktiboaren arteko oreka bermatzeko erantzukizuna ez dela indibiduala, kolektiboa baizik, eta horrek enpresak barnean hartzen dituela.**

Zabalduz jakitun da **pertsona baten alderdi guztiak ezin direla gainerakoetatik bereizi. Kooperatibari eusten dioten pertsonak motibatuta eta inplikaturik egon daitezten, sentitu behar dute beren bizitzako gainerako alderdiak (pertsona-familia-kooperatiba) profesionala bezain garrantzitsuak direla.** Horregatik, ez da nahikoa ordaindutako jarduera ekonomikoari begiratzea; aitzitik, bizitza horien sostengu eta osasunera zabaltzea behar da.

Horrek bi erronka nagusiren aurrean jartzen gaitu. Lehenik eta behin, **enpresak, familiak eta pertsonak elkarren artean erantzunkide izan behar dutela.** Eta, bigarrenik, **lana generoaren arabera banatzea eragin nabarmena duela emakumeen eta gizonen artean desorekan,** zaintza arduaren ahalegin ekonomikoari, emozionalari eta denborazkoari dagokienez. Hori egoera bidegabeetan islatzen da, besteak beste, emakumea botere postuetan ez egotea, soldata arrakala, aintzatespen ekonomiko eta sozial txikiagoa, eta, ondorioz, emakumeak ez abiatzea gizonen egoera berdinetik.

Errealitate horren jakitun, **Zabalduz 2023an hasi zen** erakundeko langileen % 60k parte hartu zuen **diagnostiko bat egiten,** eta, ondoren, **2023-2026 Kontziliazio Erantzunkidearen Plana abiarazi zuen.** Prozesu hori Kontziliazio Batzordearen sorrerarekin hasi zen, Berdintasun Batzordearekin eta abian dagoen Berdintasun Planarekin sinergian, horrela ikuspegi feminista integrala bermatuz.

Kontziliazio erantzunkiderantz aurrera egiten jarraitzeko bidean, Zabalduz-ek honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- **Kontziliazio erantzunkidearen aldeko konpromisoa** zabaltzea Bogan taldera, horko kide garenez.
- Kontziliazio erantzunkideari eta genero berdintasunari buruzko **hausnarketarako guneak sortzea eta sustatzea.**
- Aurrez aipatutako **prozesuak ezarri, horiei jarraipena egin eta ebaluatzeko behar diren baliabideak ematea** (Kontziliazio Batzordea, urteko aurrekontua...).
- Gure bizitzaren oinarri diren zinketa lanak ikusarazten jarraitzea, eta **zaintza aldarrikatzea eraldaketa kolektiboko tresna gisa.**